

40. urtemugako txotx irekiera Saizarren

Saizar Sagardotegiko hamaikagarren kupela izan genuen arreta gunenagusia, urtarrilaren 14ko iluntzean; bai hedabideok, baita sagardo zaletuek ere. Hedabideak txotx irekierako irudia grabatzeko gogoz ginen, baina gehienak, kupela barruan bildutako sagardo berria edalontzira zerbitzatu eta probatzeko irrikitan ziren.

Etxekoekin eta aurpegi eza-gun askorekin ospatu nahi izan zuen Saizar Sagardotegiak, 2016ko txotx irekiera ekitaldia. Hirugarren edizioa zen honakoa, aurrekoak baino bereziagoa; sagardotegiak 40 urte betetzen baititu aurtan.

Julian Iantzik, Euskal Telebistako aurkezle ezagunak bideratu zuen, bi izen propio izan zituen inaugurazio saioa; Joseba Zaldúa eta Diego Reyes Errealeko jokalaria. Biek izan baitzuten hamaikagarren kupeletik ateratako sagardoa dastatzeko ohorea. Sorginak taldeko dantzariak, Kepa Junkera trikitilariaren laguntzaz aurrakua eskaini eta Andoni Egañak bertsoa bota ostean etorri zen hain zuzen, bi jokalaria protagonista izan zituen ekitaldiko une garrantzitsuen. Lehen sagardo tragoa edalontzian zutela, edalontziak altxa eta sagardo berria dastatzeko denboraldia abiatu zuten, "Hauxe da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" egoki asko ahoskatu zutenean. Hitzok entzunda, berehala hasi zen kupeletako "erromesaldia".



"Hauxe da Usurbilgo Saizar sagardo berria" oihukatu zuten Real Sociedadeko Diego Reyes eta Joseba Zaldúa jokalariek, eta berehala hasi zen kupeletarako erromesaldia.

Lekua hartzen hasi...

Aginaga sagardotegia

- Helbidea: Aginaga auzoa, 20.170 Usurbil.
- 943 36 67 10.
- Emaila: info@aginagasagardotegia.com
- Web orria: aginagasagardotegia.com aginagahotela.com

Aialde-Berri sagardotegia

- Helbidea: Aialde Berri, Santuenea 37, 20.170 Usurbil.
- 943 365 031.

Araeta sagardotegia

- Orduetgia: 10:30-18:30 (astelehenetik asteazkenera), 10:30-23:00 (ostegunetik igandera).

Helbidea: Berridi bidea 22,

- 20.160 Zubieta.
- 943 362 049.
- E-posta: araeta@araeta.com
- Web orria: araeta.com

Arratzain sagardotegia

- Helbidea: Sakabanatuak, 21.
- 943 366 663 / 606 340 707.
- E-posta: info@agroturismoarratzain.com
- Web orria: agroturismoarratzain.com

Iruin sagardotegia

- Helbidea: Petritza bidea 12, 20.160 Zubieta.
- Tlf/fax: 943 361 229.

E-posta:

- info@iruinsagardotegia.com
- Web orria: iruinsagardotegia.com

Saizar sagardotegia

- Helbidea: Kalezar 39, 20.170 Usurbil.
- 943 37 39 95.
- E-posta: sidreria@sidrassaiizar.com
- Web orria: www.sidrassaiizar.com

Urdaira sagardotegia

- Helbidea: Urdaira baserria, Aginaga, 20.170 Usurbil.
- 943 372 691.
- Web orria: urdairasagardotegia.com